

# BERRI OROKORRAK

2019ko urriaren 18ean 6. zenbakia



**Euskaraz Bizi!!!!**

## euskaraz bizi nahi dut

Ikasleen artean euskaraz bizitzeko gogoia eta ilusioa sustatzeko ekintzak egingo dira abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira. Asmo horren ikusgarritasunean eta girotzean lagungarri gertatuko delakoan, **Euskaraz bizi nahi dut lelodun elastikoa edo kamiseta** erostera gonbidatzen zaituztegu, egun horretan bertan –eta baita gainerakoetan ere, noski– jantzeko. Hala nahi duzuenok, **tutoreari** entregatu beharra daukazue **eskaera-orri hau, eskatutako kamiseta bakoitzeko 10 €-rekin batera**.

Oria entregatzeko azkeneko eguna honakoa da: **urriaren 25a**.

**Ikaslearen izen-abizenak eta gela:** .....

		Adina/neurria	A x B	Ale-kopurua	
				BELTZA	
				<i>nahi dut</i>	<i>gura dot</i>
Haurrak eta gazteak	2 urte	41 X 31 cm			
	4 urte	44 X 34 cm			
	6 urte	47 X 37 cm			
	8 urte	50 X 40 cm			
	10 urte	54 X 43 cm			
	12 urte	58 X 46 cm			
Estua/entailatua	S	58 X 41 cm			
	M	59 X 43 cm			
	L	61 X 44 cm			
	XL	62 X 46 cm			
	XXL	63 X 48 cm			
Zabala	S	69 X 48 cm			
	M	71 X 50 cm			
	L	73 X 54 cm			
	XL	75 X 58 cm			
	XXL	77 X 62 cm			

Ikastetxean bertan entregatuko zaizkie eskatutako kamisetak ikasleei, aurrerago.



## 1.-Udarregi Ikastola nolako izatea nahiko zenuke? Parte-hartze ariketa

Ikastolako Artezkaritza Kontseilua hausnarketa prozesuan murgilduta dago, datozen 4-8 urteetan zer nolako ikastola nahi den erabakitzeko. Horretarako, guraso, irakasle, langile, ikasle-ohi, eta abarren kezka eta proposamenak jaso nahi ditugu datozen egunetan. Horrela, parte-hartze ariketa egin nahi dugu denon ideiak biltzeko. Jasotako erantzunetatik abiatuta, ikastolaren etorkizuna irudikatu eta lan-ildoak zehaztuko ditugu.

Hori dela eta, mesedez, Alexian galdetegiak atalean dagoen galderari **(ZEIN ALDAKETA NABARMEN/NAGUSI EGINGO ZENUKE DATOZEN 4-8 URTEAN IKASTOLAN?)** erantzutea eskatzen dizuegu; tartetxo bat besterik ez da izango.

## 2.-Jangelako hainbat ohar.

1. **Zerbitzua kudeatzen duen enpresa:** 2019/20 ikasturtean jangela zerbitzua kudeatzen duen enpresa Aibak izango da. Urtero bezala, ikastolako sukaldean janari ekologikoa prestatzen jarraituko da. **Ekinfood** proiektuaren sortzailea da Aibak enpresa. Zer da Ekinfood eta zein da bere helburua?

- ✓ Eskola jangelako **esperientzia** berri, **dibertigarri** eta **elikagarri** bat.
- ✓ Jateko orduan erakutsi entretenu eta **heziketa ona** ematen duten **begiraleak**.
- ✓ Ondo pasatzea eta **ikastea** da. Ekinfood **elikatzeko ohitura onak** dira. Jateko orduan **ohitura osasungarri, mahaiko heziketa eta ondo jateari buruzko jakintzak bereganatzea** da. Eta guztia, **konturatu gabe**.
- ✓ Jangela zabalak, argitsuak, handiak gardenak eta alaiak proposatzen ditugu.

2. **Jangelako txanda errespetatzea:** Zuen seme-alabek bazkaria era lasaiagoa eta osasuntsuago batean egin dezaten, bazkal ostean dituzten ekintzetara joateko **txanda errespetatzea eskatzen da**.

1. txanda: 12:30 – 13:30	3 urtetik LH 2. Mailara arte
2. txanda: 13:10 – 14:30	LH 3. Mailatik DBH 4. Mailara arte

3. **2018/19 ikasturterako kuotak** zein izango den jakinarazten zaizue:

### 2019-2020 ikasturtea

Bazkaldarraren perfila	Kuota izena	Uria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza	Guztira
Hilabeteka erabakiko du jangelara etortzea edo ez	H	135,24 €	117,60 €	82,32 €	99,96 €	105,84 €	117,60 €	70,56 €	117,60 €	846,72 €
Asteko 5 egunak etorriko da ikasturte osoan	H5	105,84 €	105,84 €	105,84 €	105,84 €	105,84 €	105,84 €	105,84 €	105,84 €	846,72 €
Astean 4 egun etorriko da ikasturte osoan, eta egun finkoak dira	H4	96,97 €	96,97 €	96,97 €	96,97 €	96,97 €	96,97 €	96,97 €	96,97 €	775,74 €
Irailean eta ekainean 7 € gehienez, langile egitura eta bazkaldarren arabera	E	7 €								
Menu solteak (beste kuotak aplikatzen ez diren kasu guztiak)	E	7,10 €								

## 3.-Xakea

Datorren astean ere, urriaren 21etik 25era, ez da xakeko klaserik egongo. Irakasleak gaixotasun baxan jarraitzen baitu.

## 4.-2019-20 ikasturteko Eusko Jaurlaritzako ikasketa beka.

Urriaren 29an amaituko da 2019-20 ikasturterako unibertsitatez kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa beka eskatzeko epea.

# OHARRAK ETAPAKA



HE

EZ dago berririk.



HH

## 1.-HH 3ko ikasturte hasierako gela-bilera.

Urriaren 22an, asteartea, arratsaldeko 17:00etan, ikasleen **gela**n bertan, ikasturte hasierako gela-bilera izango da. Zaintza zerbitzua egongo da.



LH

## 1.-Txertaketa kanpaina.

Eskola-osasunerako programaren barnean, Euskadiko Txertaketarako Aholku Batzordearen gomendioei jarraituz, datozen egunetan **LH6** ikasturteko ikasleei txertoak jarriko zaizkie.

Txertaketa egiteko ikasleen bitartez etxeetara helarazitako txertoa hartzeko **baimen-inprimakia** behar bezala betetzea eskatzen zaizue, arren, eta haurraren ikastetxeko tutoreari ematea **urriaren 23a baino lehen**.

Jarriko zaizkien txertoak:

Giza Papilomaren birusaren aurkako txertoa nesken kasuan, eta ACWY Meningokokoaren aurkakoa bai nesken, bai mutilen kasuan.



DBH

## 1.-DBH 4ko gurasoei zuzendutako oharra.

Urriaren 28an, astelehena, arratsaldeko 17:00etan DROGAMENPEKOTASUNaren inguruko hitzaldia izango da DBH 4ko gurasoei zuzenduta.

## 2.-Nesken pilota-saiolak.

**Astelehenean** arratsaldeko **19:30ean** hasiko dira nesken pilotan. Izena eman ez dutenak ere joan daitezke.

## 3.-Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzak.

- ❖ Eusko Jaurlaritzak, unibertsitaterik kanpoko mailerako ikasleei zuzenduta, **gailu digitalak eskuratzeko diru-laguntzak** emango ditu. Eskara egiteko epea **urriaren 25a** arte egongo da irekita. Informazio osoa: [www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/dispositivos-digitales/web01-tramite/eu/](http://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/dispositivos-digitales/web01-tramite/eu/)
- ❖ DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak 2020ko udan Erresuma Batuan, Irlandan eta Frantzia hiru asteko egonaldia eta ikastaroak egiteko laguntzak urriaren 25a bitarte eska daitezke. Informazioa [www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus)